


HUHEZIK ere Moodle plataforma erabiliko du irakaskuntzan

2007/03/14

Martxoaren 16an HUHEZIKo **dozena bat irakasle** ikastaro batean parte hartuko dute, ikasteko Moodle plataforma zelan erabili irakaskuntzan. **Eduardo Sanchez** Goi Eskola Politeknikoko irakasleak emango du ikastaroa, eta bertan azalduko du zer den Moodle, nondik sortu zen eta zeintzuk diren beronen baliabiderik esanguratsuenak.

Hortik aurrera, HUHEZIKo irakasleak hasiko dira, poliki-poliki, Moodle erabiltzen ikasleekin. Fakultateak nahi du epe labur batean Moodlen erabilera karrera eta ikasgai ia guztietara zabaltzea.



Moodle

Moodle da plataforma bat **software librean** egina, eta laguntzen du **ikaskuntza prozesuak kudeatzen**. Egina dago, gainera, pedagogia irizpideak aintzat hartuta, hezitzaileak gai izan daitezen sortzeko ikaskuntza komunitate eraginkorrak online.

Komunitate zabal bat eratu da nazioartean Moodlen inguruan. Plataforma bera **75 hizkuntzatan** erabil daiteke, tartean euskaraz, eta **160 herrialdetan** erabiltzen da. Moodle oso ondo uztartzen da Mendeberrin, Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza proiektuan.